

## **BADAKIT**

Amaia Bereziartua

*Azpeitia, 13 urte*

Irri egin zenidan  
eta nik itzala baino  
ez ikusi arren...  
banekien,  
urrunetik jakin ere,  
zu zinela,  
urrunean,  
ezen...

zure ilearen  
barre algarek

zure begien  
urduritasun alaiak

zure ezpain haragitsuaren  
freskurak

zure irudi misteriotsuaren  
erakargarritasunak

gatibu hartu ninduten  
betiereko amaraunean.  
Zorioneko gatibu!

- Musu bat, mesedez.
- Har ezazu nahi adina koilarakada,  
maitasuna hondorik gabeko lapikoa baita.
- Ekar lapiko osoa!
- On egin!

Hara zer gertakizun erotikoagorik,  
lapikoa pil-pilean,  
irrist egin,  
eta hondora erortzea baino.

Fantasiarik ezean,  
amodioaren sute iraultzailea,  
putzu hezean  
errautsetan itzaltzen da.